

# TXOSTENA
# MEMORIA
# 2011

TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

TXOS
TENA
MEMO
RIA 11

**ARGAZKIAK**
FOTOGRAFÍA
Enrique Moreno Esquivel
Jorge Flores

**DISEINUA**
DISEÑO
Aurman

TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

# AURKIBIDEA
# ÍNDICE


**Aurkezpena-gutuna**
Carta de presentación 6

**Administrazio batzordea**
Consejo de administración 8

**25 Urteurrena**
25 Aniversario 12

**2011ko ikuskizunak**
Espectáculos 2011 14

**ZINEBI 2011**
ZINEBI 2011 52

**Kolaborazioak**
Colaboraciones 56

**Estatistikak**
Estadísticas 70

**Azpiegitura eta zerbitzuak**
Infraestructura y servicios 78

**Antzokiko produkzioak**
Producciones propias 80

**Esker onak**
Agradecimientos 85



**Ibone Bengoetxea Otaolea**

**Arriaga Antzokiko**
**Presidente Eragilea**
Presidenta Efectiva
del Teatro Arriaga

Denboraldi honetan ere Arriaga Antzokiak publiko egin nahi du iazko Jardueren Memoria. Horrela jasota utziko dugu zein artista eta ikuskizunek bisitatu gintuzten, zeintzuk diren Antzokiak ekoitzitako muntaiak, zeintzuen sorkuntza prozesuan parte hartu genuen edota zeintzuk kontratatu genituen. Era askotako estilo eta genero artistikoak ekarri ditugu antzokira: antzerkia, dantza, opera, zartzuela, kontzertuak, musikalak. Arriagako Aretotxoek hazten jarraitzen dute. OLBErekin lankidetzan jarraitu dugu eta lankidetza horri esker Opera Txiki egitaraua eskaini digu. ZINEBI Zinema Jaialdiarekin ere kolaboratu dugu, zeinak bere 53. edizioa ospatu baitu.

Emaitzak baikorrak izan dira. Ongi zaintzen dugu gure administrazio-lana, eta langintza horren barruan oso garrantzitsuak dira beste zentro batzuekin garatutako koprodukzioak. Halere, garrantzitsuena publikoaren leialtasuna da; publiko bat, gure egitaraua gustuko duena eta aretora sarri etortzen dena. Horra hor gure emaitzen giltzarriak. Oso harro gaude badakigulako publikoak eta Bilbo hiriak laguntzen gaituztela, gu ere hiriko instituzio kulturalen parte baikara.

Baina bada 2011. urteko memoria honek erantzun ezin duen galdera bat. Nolako emozioak piztu zituzten ikuskizunek ikusleengan? Zein gogoeta sortarazi zizkien? Zein eragin izan zituzten ikuslearen bizitzan taula gaineko artisten umoreak, edertasunak, ideiek eta sentimenduek?

Hauxe da eskerrak emateko unea. Eskerrak gure Administrazio Kontseiluko kideei, gure babesleei, Antzokiko langile guztiei, eszenatokiari bizitza eman dioten artistei, Arriagako Lagunei eta bereziki publikoari.

Eskerrik asko denoi beste egun batez, beste urte batez, kulturaren oihala altxatzen laguntzeagatik.

Una temporada más, el Teatro Arriaga quiere hacer pública la Memoria de Actividades del año anterior. Para dejar así constancia de los artistas y espectáculos que nos visitaron; de los montajes que el mismo Teatro produjo, de aquellos en cuya elaboración fue copartícipe o de los que se contrataron. Los estilos y los géneros artísticos fueron diversos: teatro, danza, ópera, zarzuela, conciertos, musicales. Continuaron y crecieron los Cuartitos del Arriaga. Se mantuvo la colaboración con la ABAO, que continuó ofreciendo su programa Ópera Txiki" y el Festival de Cine, ZINEBI, celebró su 53 edición.

Los resultados podemos decir que han sido satisfactorios. Una administración cuidadosa, donde la coproducción con otros centros ha desempeñado un papel importante, y sobre todo la fidelidad de un público que se siente atraído por la programación y acude con regularidad a la sala son, creemos, las claves de estos resultados. Nos sentimos especialmente orgullosos de sabernos acompañados por el público y la ciudad de Bilbao, de cuyas instituciones culturales formamos parte.

Como siempre queda una pregunta que esta Memoria 2011 no puede aclarar. ¿Qué emociones suscitó en los espectadores lo que ocurrió sobre el escenario?. ¿Qué reflexiones?. ¿Cómo afectó a su vida el humor o la belleza, las ideas y los sentimientos que los artistas prodigaron en él?.

Es el momento de dar la gracias. En primer lugar a los miembros de nuestro Consejo de Administración, a nuestros patrocinadores, a todo el personal del Teatro, a los artistas que han dado vida a su escenario, a los Amigos/Amigas del Arriaga y de manera especial al público.

Gracias a todos por ayudarnos a levantar un día más, un año más, el telón de la cultura.

UN TRANVÍA LLAMADO DESEO

# ADMINISTRAZIO BATZORDEA ETA ARRIAGA ANTZOKIAREN ZUZENDARITZA

CONSEJO DE ADMISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DEL TEATRO ARRIAGA



EL CASERÍO



## ARRIAGA ANTZOKIAREN KONTSEILARIAK
## CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN TEATRO ARRIAGA

**BEREZKO PRESIDENTEA**
PRESIDENTE NATO

Excmo. Sr.
Don Iñaki Azkuna Urreta

**PRESIDENTE ERAGILEA**
PRESIDENTA EFECTIVA

Doña Ibone Bengoetxea Otaolea

**IRTEN DEN KONTSEILUA**
CONSEJO SALIENTE

Don Eduardo Maiz Olazabalaga
Don Jose Luis Sabas Olabarria
Don Luis Hermosa Santamaría
Don Txema Oleaga Zalbidea
Don Txema Gonzalo Casal
Don Javier Viar Olloqui
Doña Begoña Salinas Solano
Don Pío Ortiz de Pinedo Maza

**SARTU DEN KONTSEILUA**
CONSEJO ENTRANTE

Don Pablo Angel Ruiz de Gordejuela Urquijo
Don Josu Montes Azkarraga
Don Jesús Sanz Salamanca
Don Aitor Aguado Boada
Don Jose María Oleaga Zalvidea
Don Joseba Iñaki López de Aguileta Díaz
Don Francisco Javier Antonio Viar Olloqui
Don José Luis Sabas Olabarria

## NOR GARA
## QUIENES SOMOS

**Zuzendari Artistikoa**
Director Artístico
Emilio Sagi

**Zuzendari Artistikoaren albokoa**
Director Artístico Adjunto
Daniel Bianco

**Zuzendari Nagusia**
Director Gerente
José Ignacio Malaina Sánchez

**Programazio zuzendaria**
Director de Programación
Andoni Olivares Ijalba

**Zuzendari teknikoa**
Director Técnico
Javier Iturrioz Uriondo

**Errejidorea**
Regidor
Joseba Erkiaga Cilloniz

**Kanpo harremanak eta protokoloa**
Relaciones Externas y Protocolo
Miren García Bernaola

**Programazioaren koordinatzailea**
Coordinadora de Programación
Izaskun Etxebarria Goikoetxea

**Areto burua**
Jefe de sala
Miguel Calle Herrero

**Programazioko Teknikaria**
Técnico de Programación
Nahikari Aretxederra
María Dolores del Campo Serrano

**Zuzendari teknikoaren laguntzailea**
Ayudante del Director Técnico
Alberto Gutiérrez Campo

**Giza Baliabideetarako Administrari Laguntzailea**
Auxiliar Administrativo de RR.HH.
Natividad Alonso Alonso

**Administrari Laguntzailea -Kontabilitatea**
Auxiliar Administrativo-Contabilidad
Jesús Mª Rico Hernández

**Teknikari Laguntzailea**
Técnico Auxiliar
Itziar Olalde Rementería
Fernando Seisas López
Jon Barañano Iradier
Javier Peñas Peñas
Maite Pérez Fernández

**Aretozaina**
Acomodador/a
Sara Villa Arroyo
Daniel Díez González
José Manuel Sánchez San Juan
Antonio Soto Ibáñez

**Jostundegiko Arduraduna**
Responsable Sastrería
Oscar Armendáriz Lucarini

**Argiketarien Buru**
Jefe de electricistas
Fco. Javier Saiz Blanco

**Argiketaria**
Electricista
Antonio de la Cruz Arias
Ángel Mª Alonso García
José Antonio Becerra
Gorka Ochoa Gorostiza
Itziar Resano Igoa

**Tramoiaria**
Tramoyista
Ibon Andueza Elorza
Germán Cundín Pérez
Fco. Javier Izagirre Goikolea
Joseba Urkizu Villalain
Gorka García

**Tramoiarien Laguntzailea**
Ayudante de Tramoyista
Darío de Castro
Oscar Cáceres
Asier Joven

**Zinema Jaialdiko Idazkaria Orokorra**
Secretaria General – Zinebi
Inés Intxausti Garmendia

**Teknikari laguntzailea-ZINEBI**
Técnico Auxiliar –ZINEBI
Lucía Goitia Calzada

**Prentsa**
Prensa
Cristina Angulo (L&V)

UNA FLAUTA MÁGICA



**ARRIAGAREN**
**BERRINAUGURAZIOAREN**
**25. URTEURRENEKO**
25 ANIVERSARIO
DE LA REINAUGURACIÓN
DEL TEATRO ARRIAGA













# CONCIERTO 25 ANIVERSARIO

## de la reinauguración del Teatro Arriaga

### Abenduak 5 diciembre

**Denboraldi honetan 25 urte bete dira Arriaga Antzokiak birmoldaketa lan handi baten ondoren bere ateak berrireki zituenetik. Berrinaugurazio eguna ospatzeko, BOS Bilboko Orkestra Sinfonikoak kontzertu bat eskaini zuen, Iker Sánchezen musika zuzendaritzapean eta hitzordu hau huts egin ezin zuten abeslari hauekin: Mikeldi Atxalandabaso, Itziar de Unda, Josema Díaz, Andeka Gorrotxategi, Itxaro Mentxaka, Marifé Nogales, Helena Orcoyen, Axier Sánchez, Javier Tomé, Marta Ubieta eta Ainhoa Zuazua.**

En esta temporada se cumplen 25 años desde que el Teatro Arriaga volvió a abrir sus puertas al público tras unas importantes obras de remodelación. Celebramos la fecha con un concierto bajo la dirección musical de Iker Sánchez con la Bilbao Orkestra Sinfonikoa – BOS - Orquesta Sinfónica de Bilbao y con los cantantes Mikeldi Atxalandabaso, Itziar de Unda, Josema Díaz, Andeka Gorrotxategi, Itxaro Mentxaka, Marifé Nogales, Helena Orcoyen, Axier Sánchez, Javier Tomé, Marta Ubieta, Ainhoa Zuazua, que no podían faltar en esta celebración.













PUERTAS ABIERTAS





CONCIERTO 25 ANIVERSARIO




LES ENFANTS TERRIBLES

# EL CASERÍO

## urtarrila 21, 23, 25, 26, 28, 29 enero

Urtearen hasieran Jesús Guridiren "El Caserío" zartzuelaren muntaia berri bat ekarri genuen antzokira. Arriaga Antzokiaren produkzio berri bat da, Oviedoko Campoamor antzokiarekin koprodukzioan eginikoa. Daniel Bianco izan zen eszenografi arduraduna, Jesús Ruiz jantzien arduraduna, Miquel Ortega musika zuzendaria, Pablo Viar eszena zuzendaria eta Ángel Ódena, Marta Ubieta eta Mikeldi Atxalandabasok interpretatu zituzten "Osaba Shanti", "Ana Mari" eta "José Miguel" paperak.

El año comenzó en el escenario de nuestro teatro con un nuevo montaje de la zarzuela "El caserío" de Jesús Guridi. La nueva producción del propio Teatro Arriaga, en coproducción con el Teatro Campoamor de Oviedo, contó con la escenografía de Daniel Bianco, el vestuario de Jesús Ruiz, la dirección musical de Miquel Ortega, la escénica de Pablo Viar y con Ángel Ódena, Marta Ubieta y Mikeldi Atxalandabaso en los papeles de "Tío Shanti", "Ana Mari" y "José Miguel".



# FIORENZA CEDOLINS

## urtarrila 27 enero

Fiorenza Cedolins soprano italiar handiak Francesco Cilea, Giuseppe Verdi eta Giacomo Puccini-ren kantu eta ariaz osatutako errezitaldi bat eskaini zigun, Inessa Filistovich-en akonpainamendua izan zuelarik pianoan. Izenburu poetiko honekin aurkeztu zigun errezitaldia: "Un bel d'vedremo…il fiore della musica italiana". Fiorenza Cedolins-en ahots ederrak tinbre mamitsu eta beroa du eta teknika artatsua. Ibilbide luzea egin du eszenatoki garrantzitsuetan barrena, zuzendari ospetsuenen batutapean..

La gran soprano italiana Fiorenza Cedolins, acompañada al piano por Inessa Filistovich, nos ofreció un recital de canciones y arias de Francesco Cilea, Giuseppe Verdi y Giacomo Puccini, poéticamente titulado: "Un bel d'vedremo…il fiore della musica italiana". Fiorenza Cedolins, que destaca por el hermosísimo color de su voz, un timbre pastoso y cálido y una técnica esmerada, ha desarrollado una impresionante carrera recorriendo los más prestigiosos escenarios y actuando bajo las batutas de los más renombrados directores.



Sacha Guitry

# BEAUMARCHAIS

## otsaila 4, 5, 6, 8, 9, 10, 11, 12, 13 febrero

José María Flotats-ek Arriaga eta Madrileko Español antzokien artean koproduzitutako bere azken lana aurkeztu zigun. Sacha Guitry-k XVIII. mendeko Beaumarchais idazle eta dramagile frantsesari eskainitako obraren muntaia bat da. Beaumarchais idazle ospetsuak "Figaroren Ezteiak" eta, besteak beste, "Sevillako bizargina" lanak idatzi zituen. Flotats bera izan zen hogeita bost aktorek parte hartzen duten muntaia honetako zuzendari eta protagonista. Ezio Frigerio izan zen eszenografiaren arduraduna eta Franca Squarciapino jantziena.

José María Flotats nos presentó su último trabajo, una coproducción del T. Arriaga y el T. Español de Madrid, de la obra de Sacha Guitry dedicada al escritor y dramaturgo francés del siglo XVIII Beaumarchais, autor entre otras obras de "Las bodas de Figaro" y "El barbero de Sevilla". La obra, dirigida y protagonizada por el propio Flotats, contó con la escenografía de Ezio Frigerio y el vestuario de Franca Squarciapino y un reparto de veinticinco actores.



# HOMENAJE A CARMELO LARREA

## otsaila 19 febrero

El Consorcio, Los Mitos, Los 5 Bilbainos, Gurutze Beitia, Ainhoa Cantalapiedra, Marifé Nogales, Andeka Gorrotxategi, Kepa Junkera eta Carlos Aragónek zuzendutako Bilbao Philarmonia Orkestra (Carlos Imazen moldaketa musikalekin) Arriagako eszenatoki gainean elkartu ziren Carmelo Larrea musikari eta konposatzailea oroitu eta omenaldi bat eskaintzeko. 1907an Deustun jaio eta 1980an Madrilen hil zen konposatzaile honek "Dos cruces", "No te puedo querer" edo "Camino verde" bezalako kantu ahaztezinak idatzi zituen.

El Consorcio, Los Mitos, Los 5 Bilbainos, Gurutze Beitia, Ainhoa Cantalapiedra, Marifé Nogales, Andeka Gorrotxategi, Kepa Junkera y la Bilbao Philarmonia Orkestra dirigida por Carlos Aragón con los arreglos musicales de Carlos Imaz se reunieron sobre el escenario del Arriaga para recordar y rendir un homenaje al músico y compositor Carmelo Larrea. El autor de canciones inolvidables como "Dos cruces", "No te puedo querer" o "Camino verde" nació en 1907 en Deusto y murió en Madrid en 1980.



Juan Valderrama

# MAESTROS

## otsaila 20 febrero



**Bi gitarra, piano bat eta hari laukote bat lagun zituela, Juan Valderramak, Juanito Valderrama handiaren semeak, "Maestros" izeneko kontzertua eskaini zigun, Jesús Bolaren musika zuzendaritzapean eta hark eginiko moldaketekin. Emanaldian Valderramak gogora ekarri zituen kante flamenkoaren urrezko aroko maisu handiak: Antonio Chacón, "La Niña de los Peines", Manuel Vallejo, Ramón Montoya, Pepe Marchena eta bere aita, Juanito Valderrama.**

Juan Valderrama, hijo del gran Juanito Valderrama, nos ofreció, acompañado de dos guitarras, un piano y un cuarteto de cuerda y con la dirección musical y los arreglos de Jesús Bola, un concierto titulado "Maestros". En él el artista ha querido recordar a los grandes maestros de la época dorada del cante flamenco; nombres como Antonio Chacón, la "Niña de los Peines", Manuel Vallejo, Ramón Montoya, Pepe Marchena o su propio padre, Juanito Valderrama.



Thomas Bernhard

# ALMUERZO EN CASA DE LOS WITTGENSTEIN

## otsaila 24, 25, 26, 27 febrero

**Romea Antzokiak Bartzelonako Grec 2010 Jaialdiak koproduzitutako Thomas Bernhard autore txalotuaren "Almuerzo en casa de los Wittgenstein" obra eskaini zigun. Thomas Bernhard ezaguna da bere planteamenduen ironia, zorroztasun eta ezkortasunagatik. Josep Maria Mestres-ek zuzendu zuen muntaia hau eta Carmen Machi, Mingo Ràfols eta Àngels Bassas aktore bikainek antzeztu zuten.**

El Teatro Romea, en coproducción con el Festival Grec 2010 de Barcelona, nos presentó "Almuerzo en casa de los Wittgenstein", obra del aclamado autor austriaco Thomas Bernhard, conocido por la ironía, la lucidez y el pesimismo de sus planteamientos. El montaje lo dirigió Josep Maria Mestres y un trío de excelentes interpretes, Carmen Machi, Mingo Ràfols y Àngels Bassas, lo representaron.





BALLET DE LA ÓPERA REAL DE SUECIA

Edouard Lock

# LA LA LA HUMAN STEPS

## martxoa 4, 5 marzo



La La La Human Steps dantza konpainiak Henry Purcell-en "Dido and Eneas" eta C.W. Gluck-en "Orfeo ed Euridice" obretan oinarritutako bere azken ikuskizuna eskaini zigun. Gavin Bryars-enak dira musika moldaketak eta Edouard Lock-enak, berriz, koreografia eta zuzendaritza. 1980an Montreal-en sortu zenetik, bere burua etengabe berrasmatzen ari den konpainia honek mundu mailako ospea lortu du bere lengoaia koreografiko bikainari esker

La compañía de danza La La La Human Steps nos ofreció el último de sus espectáculos, basado en "Dido and Eneas" de Henry Purcell y en "Orfeo ed Euridice" de C. W. Gluck, con la adaptación musical de Gavin Bryars y con la coreografía y dirección de Edouard Lock. La compañía, desde su fundación en Montreal en 1980, se ha convertido en una de las más reconocidas por su lenguaje coreográfico único y en continua reinvención.



# TEATRO ARRIAGA. PUERTAS ABIERTAS

## martxoa 6 marzo

Arriaga Antzokiaren berrinaugurazioaren 25. urteurrena ospatzeko, ate irekien bi jardunaldi antolatu genituen, bilbotar guztiek aukera izan zezaten berena den Antzokia dohainik bisitatzeko. Parte hartu zuten artistek erabat desinteresatuki eskaini zituzten beren emanaldiak. Hona hemen lehenengo saioan parte hartu zutenak: Itxaro Mentxaka mezzosopranoa, Ainhoa Zuazua sopranoa, Bego trapezista, Javier Tomé tenorra, Gurutze Beitia aktorea, Carlos Imaz piano-jolea eta Rossini Abesbatza.

Para celebrar el 25 aniversario de la reinauguración del Teatro Arriaga se ofrecieron dos jornadas de puertas abiertas para invitar a todos los bilbaínos a visitar gratuitamente su Teatro. En esta primera ocasión se contó con la participación desinteresada de artistas como la mezzosoprano Itxaro Mentxaka, la soprano Ainhoa Zuazua, la trapecista Bego, el tenor Javier Tomé, la actriz Gurutze Beitia, el pianista Carlos Imaz y el Coro Rossini, que ofrecieron a los visitantes sus actuaciones.



# MARIOLA CANTARERO

## martxoa 10 marzo

Mariola Cantarero soprano granadarrak kopla kontzertu bat eskaini zigun, Rubén Fernández-Aguirrek lagundu ziolarik pianoan. Hona hemen eskaini zizkigun kantu batzuk: "La falsa monea", "La niña de tus ojos", "Pena, penita, pena", "A tu vera", "La zarzamora"... Mariola Cantarerok nazioarteko hainbat lehiaketatako sariak jaso ditu, hala nola Bartzelonako "Francisco Viñas", Kordobako "Pedro Lavirgen" eta "Premio Revelación del Círculo de Amigos del Liceo" sariak. Kontzertu berezi honekin omenaldia egin nahi izan zion koplaren generoari.

La soprano granadina Mariola Cantarero, acompañada al piano por Rubén Fernández-Aguirre, nos ofreció un concierto dedicado a la copla, interpretando temas como: "La falsa monea", "La niña de tus ojos", "Pena, penita, pena", "A tu vera", "La zarzamora"... La cantante, que ha sido galardonada en diversos concursos internacionales como el "Francisco Viñas" de Barcelona, el "Pedro Lavirgen" de Córdoba o el "Premio Revelación del Círculo de Amigos del Liceo" rendía así un homenaje a este género musical.



# HOSTOAK, HOJAS

## martxoa 16 marzo

OREKA TX musika taldeak, KUKAI dantza konpainiak eta Zuberoako AMAREN ALABAK kantari talde polifonikoak "Hostoak, Hojas" izeneko ikuskizun berezia eskaini ziguten, ikuskizun bat non kantua, musika eta dantza elkartzen dituzten iraganeko sustraiei eta etorkizunari begiratzeko. Diziplina anitzetako erreferente diren artisten arteko elkarrizketa bat da; euskal kultura dute denek abiapuntutzat, baina gaurko planteamendu garaikideetara eraman ditu bakoitzaren bilakaerak.

El grupo musical OREKA TX, la compañía de danza KUKAI y el grupo de cantantes polifónicas xuletinas AMAREN ALABAK nos ofrecieron un singular espectáculo titulado "Hostoak, Hojas", donde se aúnan canto, música y danza en una mirada a las raíces del pasado con vistas al futuro. Un diálogo entre artistas que son referentes de diferentes disciplinas y que, partiendo de la tradición de la cultura vasca, han evolucionado a planteamientos actuales y contemporáneos.



Mary Shelley

## FRANKENSTEIN

### martxoa 18, 19, 20 marzo

Gustavo Tambascio-k Frankensteini buruzko muntaia hau eskaini zigun, Mary Shelley-k 1816an idatzitako eleberria eta obra horrek 1823tik 1929ra bitartean izan zituen antzerki bertsio desberdinak oinarritzat harturik. Come y Calla produkzio etxeak aurkeztutako ikuskizun honek hainbat gai jorratzen ditu, hala nola giza izaeraren mugak, gizakiaren askatasun gosea eta jainkoak imitatuz bizitzaren zein heriotzaren zoko ezkutuenetan sartzeko grina sekretua.

Gustavo Tambascio nos ofreció este montaje sobre Frankenstein, basándose en la novela que en 1816 escribió Mary Shelley y en las distintas versiones teatrales que la obra conoció entre 1823 y 1929. Un espectáculo, presentado por Producciones Come y Calla, en torno a los límites de la naturaleza humana, el deseo de libertad del hombre y su ansia secreta de emular a los dioses y penetrar en los arcanos insondables de la vida y de la muerte.



Ermanno Wolf-Ferrari

## IL SEGRETO DI SUSANNA

Francis Poulenc

## LA VOIX HUMAINE

### martxoa 25, 26 marzo

José Luis Castroren eszena zuzendaritza eta Lorenzo Ramosen musika zuzendaritza duen produkzio berri hau BOS-Bilboko Orkestra Sinfonikoaren kolaborazio bereziarekin aurkeztu zen. XX. mendeko musika duten bi opera pieza laburrez osatuta dago: "Il segreto di Susanna", Enrico Golisciano-ren libretoa eta Ermanno Wolf-Ferrari-ren musika duena; eta "La voix humaine", Francis Poulenc-ek konposatutako azken obra lirikoa eta Jean Cocteau-ren antzerki obra batean oinarrituta dagoena.

Con dirección escénica de José Luis Castro y musical de Lorenzo Ramos y la colaboración especial de la Bilbao Orkestra Sinfonikoa BOS, se presentó esta novedosa producción constituida por dos piezas operísticas breves con música del siglo XX: "Il segreto di Susanna" con libreto de Enrico Golisciano y música de Ermanno Wolf-Ferrari y "La voix humaine", última obra lírica compuesta por Francis Poulenc, basada en una pieza teatral de Jean Cocteau.



## SERGIO DALMA

### martxoa 27 marzo

Hogeita bi urte baino gehiagoko ibilbide artistikoa eginik eta hamahiru disko eta klasiko bihurtu diren hogei bat kantu kalean dituelarik iritsi zen Sergio Dalma Arriagara, entzuleekiko kontaktua intimitateraino eraman nahi duen eta auditorio eta antzokietarako pentsatuta dagoen kontzertu bira baten barruan. 1989an kaleratu zuen bere lehen diskoa, ospetsu egin duen bere izen artistikoarekin. Harrezkero, "Bailar pegados" kantuaren egilea Espainiako pop musikaren irudi handienetako bat bihurtu da.

Con una carrera artística de más de veintidós años, trece discos editados y una veintena de canciones convertidas en clásicos, Sergio Dalma quiso presentarse en el Arriaga, en una gira de conciertos pensada para auditorios y teatros donde el contacto con el público alcanza una mayor intimidad. Desde que en 1989 lanzase su primer disco con su nombre artístico, Sergio Dalma, el autor de "Bailar pegados" se ha convertido en una de las grandes figuras de nuestra música pop.



Bothanica

## MOMIX

### martxoa 29, 30, 31 marzo
### apirila 1, 2, 3 abril

Ez da lehen aldia Momix Arriaga Antzokira datorrena. Moses Pendleton-ek 1980an sortu zuenez geroztik, dantzari-ilusionista konpainia honen ospea mundu osora zabaldu da paregabeko kreatibitate eta edertasuneko bere sorkarien medioz."Bothanica" da bere azken ikuskizuna, metamorfosiaren ideian oinarrituta dagoena. Edertasunez beteta dagoen baina gizakiak mehatxatzen duen planeta bat agertuko da ikusleen begietara, Vivaldi edo Peter Gabriel-en musikaren doinura.

No era la primera vez que Momix, la compañía de bailarines-ilusionistas creada en 1980 por Moses Pendleton, conocida en el mundo entero por sus obras de excepcional creatividad y belleza, visitaba el Teatro Arriaga. "Bohanica", su último espectáculo, acompañado por temas musicales de Vivaldi o de Peter Gabriel, está basado en la idea de la metamorfosis y nos habla de un planeta amenazado por el hombre, pero todavía lleno de belleza.






LA DEL MANOJO DE ROSAS

Música callada. La vida rima.

# ANA BELÉN ROSA TORRES-PARDO

## apirila 7 abril



Ana Belén aktoreak eta Rosa Torres-Pardo piano-joleak musika eta poesia txandakatzen dituen ikuskizun berezi bat eskaini ziguten. Luis García Montero poeta granadarraren gidoiari jarraiki eta José Carlos Plazaren eszena zuzendaritzapean aurkeztu ziguten pianoaren eta ahotsaren arteko elkarrizketa, pianorako musikaren eta poesia espainiarraren arteko solasa eta bien laburpena: kantua.

La actriz Ana Belén y la pianista Rosa Torres-Pardo nos ofrecieron un espectáculo singular donde se alternaban música y poesía. Con guión del poeta granadino Luis García Montero y la dirección escénica de José Carlos Plaza presentaron este diálogo entre piano y voz, entre música para piano y poesía española y la síntesis de ambas: la canción.



Nacho Duato

# COMPAÑÍA NACIONAL DE DANZA

## apirila 15, 16, 17 abril

Nacho Duatok 1990etik zuzentzen duen Espainiako Dantza Konpainia Nazionala gure eszenatokira itzuli zen egitarau hirukoitz bat eskaintzeko. "White Darkness", "Adiemus – Songs of Sanctuary" Karl Jenkins-en musikarekin; "O Domina Nostra", Henryk Górecki-ek organo eta ahotsarentzat eginiko musikarekin eta "Gnawa" ¬ Marokon esklabo beltz deportatuen ondorengoei ematen zaien izena – Espainiako eta Afrika iparraldeko soinuz betetako musikarekin.

La compañía Nacional de Danza, dirigida desde 1990 por Nacho Duato, volvió a nuestro escenario para ofrecernos sus últimos trabajos con un triple programa. "White Darkness" sobre la composición de Karl Jenkins, "Adiemus – Songs of Sanctuary"; "O Domina Nostra", con música para órgano y voz de Henryk Górecki y "Gnawa" ¬ nombre con que se designa en Marruecos a los descendientes de los esclavos negros deportados – con una música repleta de sonidos españoles y norteafricanos.



Tennessee Williams

# UN TRANVÍA LLAMADO DESEO

## apirila 29, 30 abril maiatza 1 mayo

Arriaga Antzokian izan genuen Juanjo Seoanek ekoitzitako eta Mario Gasek zuzendutako Tennessee Williams-en "Un tranvía llamado deseo" obra. Bi pertsonaia oso desberdinek irudikatutako bi munduren arteko borroka agertzen du obra horrek: batetik, Blanche Dubois daukagu, Hegoaldeko emakume erakargarria eta ero samarra, zahartzaroa onartu nahi ez duena eta, bestetik, Stan, poloniar zakar, edale eta jokalaria. Vicky Peña eta Roberto Álamo aktoreek interpretatu zituzten bi pertsonaia horiek.

La obra de Tennessee Williams "Un tranvía llamado deseo" nos fue presentada en una producción de Juanjo Seoane y dirigida por Mario Gas. El enfrentamiento de dos mundos tan distintos como los representados por Blanche Dubois, la atractiva y desequilibrada mujer del Sur que se niega a aceptar el final de su juventud y su cuñado Stan, un polaco rudo, bebedor y amante del juego, lo interpretaron Vicky Peña y Roberto Álamo.



Recital Ópera y Zarzuela

# CARLOS ÁLVAREZ ROCÍO IGNACIO

## maiatza 2 mayo

Carlos Álvarez baritonoak eta Rocío Ignacio sopranoak kontzertu bat eskaini ziguten Rubén Fernández-Aguirre piano-jolearen laguntzarekin. Hainbat autoreren ariak eta kantuak interpretatu zituzten, hala nola R. Vaugham Williamrs, M. Ortega, H. Villa-Lobos, A. Dvorak, L. Denza, F. P. Tosti, G. Donizetti, W. A. Mozart, M. Leigh, A. Lloyd Webber eta T. Renis. 

El barítono Carlos Álvarez y la soprano Rocío Ignacio, acompañados por el pianista Rubén Fernández-Aguirre, nos ofrecieron un concierto en el que interpetaron un variado programa que incluía arias y canciones de R. Vaugham Williamrs, M. Ortega, H. Villa-Lobos, A. Dvorak, L. Denza, F. P. Tosti, G. Donizetti, W. A. Mozart, M. Leigh, A. Lloyd Webber y T. Renis.



Marc Ribaud

# BALLET DE LA ÓPERA REAL DE SUECIA

## maiatza 6, 7 mayo

30 Suediako Errege Operako Baletak -munduko zaharrenetakoa denak- egitarau bikoitza eskaini zigun Marc Ribaud-en zuzendaritzapean: "Tableau perdu", F. Mendelssohn-en La maiorreko 4. Sinfoniaren ("Italiana") musikarekin eta Christian Spuck-en koreografiarekin eta "Rättika" Johannes Brahms-en Re maiorreko biolin eta orkestrarako kontzertuaren musikarekin eta Mats Ek-en koreografiarekin, Ana Laguna espainiarra laguntzaile izan zuela.

El Ballet de la Ópera Real de Suecia, uno de los más antiguos del mundo, dirigido por Marc Ribaud nos ofreció un doble programa: "Tableau perdu" con música de la 4ª Sinfonía en La mayor "Italiana" de F. Mendelssohn con coreografía de Christian Spuck y "Rättika" con música del Concierto para violín y orquesta en re mayor de Johannes Brahms y coreografía de Mats Ek, asistido por la española Ana Laguna.



# PASTORA SOLER

## maiatza 8 mayo

Duela gutxi 2012ko Eurivisión jaialdian Espainia ordezkatzeko izendatu duten Pastora Soler kantari sevillarra Arriagara etorri zitzaigun "Bendita locura" bere azken grabazioko kantuak kontzertu batean eskaintzera. Horrezaz gain, kopla tradizionaletik kantu modernoraino doan bere errepertorioko beste hainbat abesti kantatu zituen gero eta jende gehiago erakartzen eta hunkitzen duen bere estilo pertsonal horrekin.

La cantante sevillana Pastora Soler, que recientemente ha sido designada para representar a España en el Festival de Eurovisión de 2012, nos visitó para ofrecernos un concierto con las canciones incluidas en su última grabación, "Bendita locura" y otras muchas de su amplio repertorio que va de la copla tradicional a la canción moderna, interpretadas todas con un estilo personal, que ha arrastrado y conmovido a un público cada vez más numeroso.





LA SONRISA ETRUSCA

Wolfgang Amadeus Mozart

## UNA FLAUTA MÁGICA

maiatza 13, 14 mayo



Peter Brook zuzendari eta antzerki gizon handiak ikuskizun berezi bat aurkeztu zigun: W. A.Mozarten "Die Zauberflötte" obraren egokitzapen libre bat, Franck Krawczyk musikariak, Marie-Hélène Estienne dramagileak eta Brook-ek berak egina: "Txirula magiko bat". Matan Porat piano-joleak antzeztu zuen obra eta taula gainean lagun izan zituen zazpi kantari eta bi aktore, eszenara ateratzen jakin zutenak Mozarten obrako grazia, samurtasun eta sakontasun guztia.

El gran director y hombre de teatro Peter Brook nos presentó un espectáculo singular: una adaptación libre de "Die Zauberflötte" de W. A.Mozart, realizada por el músico Franck Krawczyk, la dramaturga Marie-Hélène Estienne y el propio Brook, que titularon "Una flauta mágica". La obra fue representada por un pianista, Matan Porat, un joven y talentoso reparto de siete cantantes y dos actores, que supieron trasladar al escenario toda la gracia, la ternura y la profundidad de la obra de Mozart.



Friedrich Dürrenmatt

## LA AVERÍA

maiatza 17, 18, 19 mayo

"La avería" Fernando Sansegundoren antzerkirako moldaketa bat da, Friedrich Dürrenmatt autore suitzarraren izen bereko ipuinean oinarritzen dena. Blanca Portillok zuzendu zuen Avance, Entrecajas eta Arriaga Antzokiaren arteko koprodukzio hau eta Alberto Jiménez eta Asier Etxeandia bezalako aktore bikainen laguntza izan zuen azidotasunez eta ironiaz betetako legearen eta justiziaren arteko eztabaida kitzikagarria antzezteko.

"La avería" es la adaptación al teatro que Fernando Sansegundo realizó sobre el cuento del mismo título, original del autor suizo Friedrich Dürrenmatt. En esta coproducción de Avance, Entrecajas y el propio Teatro Arriaga, que dirigió Blanca Portillo y contó con un extraordinario reparto encabezado por Alberto Jiménez y Asier Etxeandia, se desarrolla un inquietante debate sobre la ley y la justicia en un tono lleno de acidez e ironía.



Petite Messe Solennelle

## ORFEÓN DONOSTIARRA

maiatza 28 mayo

Donostiako Orfeoiak G. Rossini-ren "Petite Messe Solennelle" eskaini zigun Elena Barbé sopranoarekin, Ainhoa Zubillaga mezzosopranoarekin eta Jesús María García Aréjula baxuarekin, 1986tik taldeko zuzendari titularra den José Antonio Sáinz Alfaroren batutapean. 1897an sortutako eta kide amateurrez osatutako Donostiako Orfeoia Espainiako abesbatza garrantzitsuenetzat jotzen da.

El Orfeón Donostiarra, acompañado por la soprano Elena Barbé, la mezzosoprano Ainhoa Zubillaga y el bajo Jesús María García Aréjula con la dirección del que es su titular desde 1986, José Antonio Sáinz Alfaro, nos ofreció la "Petite Messe Solennelle" de G. Rossini. El Orfeón Donostiarra, fundado en 1897 y cuyos miembros son amateurs, está considerado como la más importante agrupación coral de España.



Pipo Delbono

## URLO

ekaina 3, 4 junio

Pipo Delbono konpainiak 2004an Festival D'Avignon jaialdian estreinatutako "Urlo" bere sorkuntza-lana eskaini zigun. Obra honek boterea jorratzen du bere forma anitzetan (botere politikoa eta erlijiosoa, kulturaren indarra...), baina baita ere gure harreman eta sentimenduen barruko mekanismoak. Ikuskizun honetan, Delbono berriro itzuliko da lehen lanetako lengoaiara, gorputzaren eta keinuaren antzerkira, hitzak zentzuz betetzen dituzten ahots eta kantuekin. 

La compañía Pipo Delbono nos presentó su creación "Urlo", estrenada en el Festival D'Avignon de 2004. Su tema es el poder en sus más diversas formas; el poder político y el religioso, el de la cultura... pero también los mecanismos intrínsecos en lo sentimental y en nuestras relaciones. Con este espectáculo Delbono regresa al lenguaje de sus primeros trabajos, a un teatro del cuerpo y del gesto, mientras la voz y el canto llenan las palabras de sentido.





LA, LA, LA HUMAN STEPS

Burnia

# AUKERAN

## **ekaina 9, 10, 11** junio

**Aukeran dantza konpainiak Arriaga Antzokiak koproduzitutako "Burnia" bere azken lana aurkeztu zigun. 1997an sortu zenetik hona, Aukeran konpainia donostiarrak tradizioan sustraitutako dantza ikuskizunak sortu ditu Edu Muruamendiarazen esanetara. Tradizioan sustraitutako lanak badira ere, arau asko desegituratu dituzte eta zantzu garaikideak erantsi dizkiete koreografiei, euskal dantza tradizionalaren aberastasuna erakusteko eta lengoaia fresko eta egungoagoa lortzeko.**

La compañía de danza Aukeran presentó su último trabajo, "Burnia" (Hierro), que fue coproducido por el Teatro Arriaga. La compañía donostiarra fue fundada en 1997 y desde entonces, bajo la dirección de Edu Muruamendiaraz, ha creado espectáculos de danza de raíz tradicional, desestructurando muchas de sus normas y añadiendo retazos contemporáneos en las coreografías, con la intención de mostrar la riqueza del baile tradicional vasco y conseguir un lenguaje más fresco y actual.



Pablo Sorozabal

# LA DEL MANOJO DE ROSAS

## **ekaina 22, 23, 25, 26, 28, 29** junio

**Oviedoko Campoamor Antzokiak ekoitzitako Pablo Sorozabalen "La del manojo de rosas" zartzuela etorri zitzaigun Arriaga Antzokira. Bi ekitaldiko sainete liriko bat da, Madrileko auzo bateko plazan eta estreinatu zeneko sasoian girotua. Muntaia honetan BOS-Bilboko Orkestra Sinfonikoak parte hartu zuen Josep Caballé Doménech-en zuzendaritzapean eta baita ere Rossini Koruak. Emilio Sagi arduratu zen eszena zuzendaritzaz eta Sabina Puértolas, David Menéndez eta Jorge Rodríguez-Nortonek interpretatu zituzten paper nagusiak.**

Se presentó en nuestro escenario una producción del Teatro Campoamor de Oviedo de la zarzuela de Pablo Sorozábal, "La del manojo de rosas". Este sainete en dos actos, ambientado en un Madrid popular en la época de su estreno, contó en este montaje con la Bilbao Orkestra Sinfonikoa BOS, dirigida por Josep Caballé Doménech, la participación del Coro Rossini, la dirección escénica de Emilio Sagi y con Sabina Puértolas, David Menéndez y Jorge Rodríguez-Norton en los principales papeles.



# AVENUE Q

## **abuztua 12 - iraila 4**
## agosto 12 - septiembre 4

**Bilboko Aste Nagusian aurkeztu genuen Broadway-n eta Londresen hainbeste fama eta sari jaso dituen "Avenue Q" musikala. Muntaia orijinal honetan Barrio Sésamo telesaioan nonbait oinarritutako panpinak eta benetako interpreteak konbinatzen dira, baina ez da haurrentzako ikuskizun bat. Xarmaz eta alaitasunez gainezka dagoen obra hau umore zorrotzaz eta hizkera zuzenaz baliatzen da ironiaz lantzeko hainbat gai, hala nola arrazismoa, langabezia, homosexualitatea eta pornografia.**

Precedido por la fama de su éxito en Broadway y Londres y de los numerosos galardones recibidos, se presentó el musical "Avenue Q" durante la Semana Grande bilbaína. En este original montaje se combinan muñecos, que recuerdan a Barrio Sésamo, e intérpretes de carne y hueso, pero no es un montaje infantil. Con un humor inteligente y un lenguaje directo, ironiza sobre temas como el racismo, el paro, la homosexualidad o la pornografía, rebosando alegría e ingenio.



# AL FINAL DEL ARCOÍRIS

## **iraila 8, 9, 10, 11** septiembre

**Judy Garland aktore ezaguna da "Al final del arcoíris" obrako protagonista. Bere bizitzako azken hilabeteetan, kontzertu bat prestatzen ari da Londresko luxuzko hotel bateko gelan berriro oholtzara itzultzeko. Miguel Rellán eta Javier Mora lagun dituela, Natalia Dicenta aktoreak interpretatzen du Judy Garland. Bere abesti ezagunenetako batzuk kantatzen ditu eta emakume bat erakusten digu, bihotza hautsia baina umorea aldean duena.**

"Al final del arcoíris" tiene como protagonista a una Judy Garland, en sus últimos meses de vida, preparándose en un hotel londinense para regresar, una vez más, a los escenarios. Acompañada por Miguel Rellán y Javier Mora, Natalia Dicenta interpreta a Judy Garland, canta algunas de sus canciones más memorables y nos muestra en esta comedia musical dramática, a una mujer con el corazón roto pero que conserva hasta el final su sentido del humor.



# TEATRO ARRIAGA PUERTAS ABIERTAS

## iraila 18 septiembre

Arriaga Antzokiaren berrinaugurazioaren 25. urteurrena ospatzeko bigarren hitzordu honetan, bilbotar guztiak gonbidatu genituen berena den Antzokia bisitatzera, eta hainbat artistek (Gurutze Beitia, Loli Astoreka, Mikel Losada, Itziar de Unda, Marifé Nogales, Rubén Fernández-Aguirre, Itziar Lazkano, Aritza Rodríguez eta Igor Yebra Dantza Eskolako Aitor Galíndez, Ane Barrio, Patricia Becares eta Garazi Pablogorran) desinteresatuki eskainitako saio txikiak ikusi zituzten.

En esta segunda fecha de celebración del 25 aniversario de la reinauguración del Teatro Arriaga, de nuevo todos los bilbaínos estuvieron invitados a visitar su Teatro y a asistir a alguno de los diversos pases que se hicieron con la desinteresada colaboración de artistas como Gurutze Beitia, Loli Astoreka, Mikel Losada, Itziar de Unda, Marifé Nogales, Rubén Fernández-Aguirre, Itziar Lazkano, Aritza Rodríguez y los miembros de la Escuela de Danza de Igor Yebra: Aitor Galíndez, Ane Barrio, Patricia Becares y Garazi Pablogorran.



Josep Maria Pou

# CONCHA VELASCO. YO LO QUE QUIERO ES BAILAR

## iraila 21 – 30 septiembre urria 1, 2 octubre

Concha Velasco aktore handiak Focus etxeak produzitutako ez-ohiko ikuskizun bat aurkeztu zuen Arriagan. Lau musikariz lagundurik eta Josep Maria Pouren zuzendaritzapean, kantatu eta dantzatu egin zuen eta errepaso dibertigarri eta maitagarri bat eman zion artearen munduan bizi izan duenari, arrakastei eta porrotei, antzerkian, zineman eta telebistan egin dituen pertsonaiei eta berea bezalako bizitza bat osatzen duten anekdota guztiei.

La gran actriz Concha Velasco se presentó en el Arriaga en un espectáculo insólito, producido por Focus. Acompañada de cuatro músicos y dirigida por Josep Maria Pou, cantó, bailó y dio un repaso divertido y entrañable a su propia vida en el arte, a los éxitos y los fracasos, a los personajes a quienes dio vida en el teatro, el cine y la televisión y a las muchas anécdotas que jalonan una vida como la suya.





AUKERAN

# REVOLVER

## urria 6 octubre

"Revolver" taldeak –Carlos Goñi- hogei urte baino gehiagoko ibilbidea du eta dozena bat grabaketa egin ditu. Oraingoan, Bilbon aurkeztu zen gure eszenatokian, "Argan" izeneko bere azken laneko kantuak eskaintzeko. Marrakech-en eginiko lan bat da, non soinu berriak probatu baititu abentura musikal batean; abentura bat, ezinbestekoa dena sortzaile guztientzat hazten jarraitzeko eta toki batean iltzatuta ez geratzeko behar den tentsioari eusteko.

Carlos Goñi, Revolver" tiene tras de sí ya una carrera de más de veinte años y una docena de grabaciones. En esta ocasión se presentó en Bilbao, en nuestro escenario, para ofrecernos sus últimas cancines incluidas en el disco titulado "Argan". Este es el resultado de su trabajo en Marrakech, a la búsqueda de nuevos sonidos, en una aventura musical necesaria para todo creador que desea no perder la tensión y seguir creciendo.



José Luis Sanpedro

# LA SONRISA ETRUSCA

## urria 11, 12, 13, 14, 15 octubre

Juan Pablo Heras-ek antzerkirako moldatu du José Luis Sanpedro ekonomista, idazle eta pentsalariaren "La sonrisa etrusca" lana, 1985ean arrakasta handiz argitaratu zena. Pentación Espectáculos etxeak produzitu eta José Carlos Plazak zuzentzen du eszenako eta zinemako bi figura handik interpretatutako muntaia hau: Héctor Alterio eta Julieta Serrano.

La novela "La sonrisa etrusca", publicada con gran éxito en 1985, obra del economista, escritor y pensador José Luis Sanpedro, ha sido adaptada para el teatro por Juan Pablo Heras. Producida por Pentación Espectáculos y dirigida por José Carlos Plaza, se presentó en el Arriaga con un reparto encabezado por dos primeras figuras de la escena y el cine: Héctor Alterio y Julieta Serrano, que dieron vida a sus protagonistas.



Juan Antonio Urbeltz

# ARGIA AUNITZ-URTEZ

## urria 16 octubre

Argia euskal dantzari taldeak -bere zuzendari den Juan Antonio Urbeltz folklorista eta ikerlariak sortua 1965ean- Arriaga antzokian aurkeztu zuen "Aunitz-Urtez" ikuskizunaren estreinaldi absolutua. Txapela eskuan dutela agurtzen duten bitartean oihukatzen dute Aunitz-Urtez esaera ederra Baztan bailara nafarreko dantzari gazteek eta aldi berean biribilean jartzen dira beren dantzak egiten hasteko, horregatik jarri zaio izen hori ikuskizunari.

El grupo de danzas vascas Argia, creado en 1965 por su director, el folklorista e investigador Juan Antonio Urbeltz, presentó en el Arriaga el estreno absoluto de su último espectáculo "Aunitz-Urtez" (Por muchos años). El título alude a la expresión con la que, txapela en mano, saludan al público los jóvenes del valle navarro del Baztán, mientras van formando el corro sobre el que bailarán sus particulares danzas.



# CONTRA EL VIENTO DEL NORTE.
## IPAR HAIZEAREN KONTRA

## urria 20, 21, 22 octubre

Tanttaka antzerki konpainiak "Contra el viento del norte" – "Ipar haizearen kontra" obraren euskarazko eta gaztelaniazko estreinaldi absolutuak eskaini zizkigun, non gizon eta emakume batek ordenagailuaren bidez duten harremana kontatzen baita. Daniel Glattauer-en eleberrian oinarritua eta Ulrike Séme-k eszenarako egokitua, Joseba Apaolaza, Kike Díaz de Rada eta Itziar Atienzak interpretatu zuten José Ibarrolaren eszenografiarekin eta Fernando Bernués-en zuzendaritzapean.

La compañía de teatro Tanttaka presentó el estreno absoluto en euskera y castellano de la obra "Contra el viento del norte" – "Ipar haizearen kontra", que cuenta la relación entre un hombre y una mujer mantenida a través del ordenador. Basada en la novela de Daniel Glattauer y adaptada para la escena por Ulrike Séme, contó con la escenografía de José Ibarrola, la dirección de Fernando Bernués y la interpretación de Joseba Apaolaza, Kike Díaz de Rada e Itziar Atienza.





IL SEGRETO DI SUSANNA

William Shakespeare

# MACBETH

urria **27, 28, 29** octubre

Antzerki Klasikoko Konpainia Nazionaleko zuzendari izendatu berri duten Helena Pimentak idatzi eta zuzendu du Ur Teatroa konpainiak eskainitako Shakespeare handiaren obra honen bertsio berria: "Macbeth". "Tragedia eskoziar" honetan bilau bihurtutako heroiaren istorioa kontatzen da, hots, neurrigabeko anbizio batek eragindako pertsonaiaren igoera eta erorikoa. José Tomék egin zuen Macbeth-en papera eta Pepa Pedroche izan zen lady Macbeth.

La recientemente nombrada directora de la Compañía Nacional de Teatro Clásico, Helena Pimenta, es la autora de la versión y directora de este nuevo montaje que de la obra de Shakespeare, "Macbeth", nos ofreció la compañía Ur Teatroa. La llamada "tragedia escocesa" es la historia de un héroe convertido en villano, la ascensión y caída de alguien guiado por una ambición desmedida. José Tomé interpretó el papel de Macbeth y Pepa Pedroche el de lady Macbeth.



# CONCIERTO HOMENAJE A TOMÁS LUIS DE VICTORIA

urria **30** octubre

José Hernández Pastor kontratenorrak, José Antonio López baritonoak, Marina Pardo mezzosopranoak eta L'Almodí Ganbera Koruak kontzertu bat eskaini ziguten Espainiako Errenazimenduko polifonista ospetsuena izan zen Tomás Luis de Victoriaren heriotzaren laugarren mendeurrena ospatzeko, eta konposatzailearen obra batzuk eta bere garaikideek (Santiago Lanchares, César Camarero, Alfredo Aracíl eta Voro García) idatzitako beste batzuk abestu zituzten.

Con motivo del cuarto centenario de la muerte del abulense Tomás Luis de Victoria, el más celebre polifonista del Renacimiento español, el contratenor José Hernández Pastor, el barítono José Antonio López, la mezzosoprano Marina Pardo y el Coro de Cámara L'Almodí nos ofrecieron un concierto en el que se alternaron una escogida muestra de sus composiciones con obras de algunos de compositores contemporáneos como: Santiago Lanchares, César Camarero, Alfredo Aracíl y Voro García.



Tomaž Pandur

# LA CAÍDA DE LOS DIOSES

azaroa **4, 5, 6** noviembre

Tomaž Pandur eszena zuzendariak Luchino Visconti omendu nahi izan du zinemaren historiako film onenetako baten antzerkirako bertsio honekin: "La caída de los dioses" . Obra honetan kontatzen da nolakoa den Alemaniako familia aristokratiko baten gainbehera eta deskonposaketa Hirugarren Reich-aren hasieran. Madrileko Español antzokiaren produkzio honetan aktore bikainek parte hartu dute, hala nola Belén Rueda, Pablo Rivero, Alberto Jiménez, Fernando Cayo eta Manuel de Blasek.

El director de escena Tomaž Pandur ha querido rendir un homenaje a Luchino Visconti con la versión teatral de una de las grandes películas de la cinematografía: "La caída de los dioses", donde se cuenta el declive y la descomposición de una aristocrática familia alemana en los primeros momentos del tercer Reich. Esta producción del Teatro Español de Madrid contó con un extraordinario reparto donde figuraban Belén Rueda, Pablo Rivero, Alberto Jiménez, Fernando Cayo y Manuel de Blas, entre otros.



Theatre of ilusion

# THE SPENCERS

azaroa **20** noviembre

Kevin eta Cindy Spencer senar-emazteek, The Spencers bezala ezagunagoak direnek eta Houdini ezizena irabazi dutenek, "Theatre of ilusion" ikuskizuna aurkeztu ziguten. Artista amerikar hauek berriro definitu dute ilusioaren artea, magoaren eta bere laguntzailearen estereotipo tradizionala hautsiz. 10 urtez baino gehiagoz Estatu Batuak eta mundu osoa kurritu dute drama, komedia, amodioa, suspensea eta ilusioa konbinatzen dituzten emanaldiak eskainiz.

El matrimonio constituido por Kevin y Cindy Spencer, The Spencers, que se han ganado el sobrenombre de los Houdini de la actualidad, nos presentaron su "Theatre of ilusión". Estos artistas americanos han redefinido el arte de la ilusión, rompiendo el estereotipo tradicional del mago y su asistente, a lo largo de más de 10 años actuando por todo Estados Unidos y el resto del mundo, con un espectáculo que combina drama, comedia, romance, suspense e ilusión.



# LOS SECRETOS

azaroa 22 noviembre



Los Secretos, hurkoari zoriona ematen dioten kantu on ugari dauzkan musika talde hau, Arriaga Antzokira etorri zen bere azken sorkuntzak aurkeztera, oraingoan orkestra batek lagunduta.
Espainiako popa ez zatekeen berdina izango "Los Secretos" gabe; distantzia luzeko korrikalariak izan dira, orotariko zailtasunak gainditu dituzte eta beti aurrera jarraitu dute beren lanean sinetsiz, borrokarako prest beren gitarrekin eta kantu formako istorioekin.

Los Secretos, el grupo musical que atesora un montón de buenas canciones que han regalado felicidad al prójimo, llegaron al Teatro Arriaga para presentarnos sus últimas creaciones, acompañados en esta ocasión de una orquesta.
El pop español no sería el mismo sin Los Secretos, unos corredores de fondo, que sobreponiéndose a dificultades de todo tipo, han seguido adelante, creyendo firmemente en lo que hacían, peleando, armados de sus guitarras y sus historias en forma de canción.



Autorretrato

# MARÍA PAGÉS

azaroa 25, 26 noviembre

**Mikhail Baryshnikov-ek gonbidapena egin zion María Pagési BAC konpainian (Baryshnikov Arts Center) dantza egiteko eta horixe izan zen "Autorretrato" ikuskizunaren ernamuina. Obra oso pertsonala da, pertsona, dantzari eta sortzaile gisa nolakoa den erakutsiko diguna. Hortik sortu zen bere barne bilaketa hori mugimendu edo egoera eszeniko bihurtzeko ideia. Bi kantarik, bi gitarristak, biolinak, txeloak eta perkusioak lagunduta eta dantzari talde zabal batek babestuta, María Pagések berak zuzendu eta koreografiatu duen "Autorretrato" ikuskizuna aurkeztu zigun.**

El embrión del espectáculo "Autorretrato" fue una invitación de Mikhail Baryshnikov a María Pagés a bailar en el BAC (Baryshnikov Arts Center) una obra muy personal, que la mostrara como persona y como bailaora y creadora. De ahí la idea de traducir en movimiento, en situación escénica, esa búsqueda interior. Acompañada de dos cantaores, dos guitarristas, violín, chelo y percusión y un amplio cuerpo de baile, María Pagés presentó este "Autorretrato", que ella misma ha dirigido y coreografiado.





FIORENZA CEDOLINS

# MARÍA DOLORES PRADERA

azaroa 27 noviembre

María Dolores Pradera kantuaren dama handiak bidaia bat egitera gonbidatu gintuen bere errepertorioaren onena errepasatzeko. Errekinto bat, gitarra bat, kontrabaxu bat eta perkusioa lagun, Carlos Cano edo Chabuca Granda bezalako autoreak omendu zituen "Habaneras de Cadiz" edo "La flor de la canela" bezalako abesti ezagunekin, eta beti bezala entzuleen laudorioak jaso zituen.

La gran dama de la canción, María Dolores Pradera, nos invitó una vez más a acompañarla en un viaje musical por lo mejor de su repertorio. Acompañada de un requinto, una guitarra, un contrabajo y percusión rindió homenaje a autores como Carlos Cano o Chabuca Granda en canciones como "Habaneras de Cadiz" o "La flor de la canela", piezas tan populares como todas las que canta esta artista, que se ganó como siempre el favor del público.



Philip Glass

# LES ENFANTS TERRIBLES

abendua 2, 3 diciembre

